

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****LAUDIOKO UDALA****KULTURA GARAPEN ARLOA****2021 urteko kultura egitarauetarako diru-laguntzen ematea**

2021eko abenduaren 17an egindako ohiko bilkuran onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak Laudion 2021 urteko kultura egitarauetarako diru-laguntzen ematea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta 45. artikuluko b. puntuan xedatutakoaren ildotik, hau argitaratzen da, denek jakin dezaten:

2021ean Laudion kultura egitarauetarako diru-laguntzen ematea onestea.

2021eko uztailaren 23an egindako ohiko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Laudion 2021 urteko kultura egitarauak garatzeko diru-laguntzak emateko deialdia eta hura arautzeko oinarriak.

2021eko abuztuaren 9ko ALHAOn argitaratu ziren deialdia eta oinarriak, eta eskaerak aurkezteko epea ireki zen, parte hartu zuten erakundeek dagozkien eskaerak aurkeztu zituzten.

Guztirako 9.500,00 euro 2021eko aurrekontuko bada aurrekontu-zuzkidura nahikorik gastu aurre egiteko, lote batean banatuta, 0600 3341 48110 partidan.

Diru-laguntzaren ehuneko ehun zenbatekoa justifikazioa aurkeztu baino lehen ordainduko da.

Diru-laguntzaren onuradunek bi hilabeteko epean justifikatu beharko dute diru-laguntza, diruz lagundutako jarduera amaitzen denetik edo jarduera eman dela jakinarazten zaion egunetik zenbatzen hasita. Data hori ez da inola ere 2022ko martxoaren 31 baino luzeagoa izango.

Aurrekariak kontuan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak Laudion 2021 urteko kultura egitarauak garatzeko diru-laguntzak ematea onestu du, zehazten diren zenbatekoetan:

1. SORTA

Agente ezberdinek gure herrian antolatutako jarduera kulturalak. Kopurua 8.000,00 euro.

ELKARTEA	EGITARAUA	2021EKO DIRU-LAGUNTZA
Laudioko Kulturzaleak	Kulturlab	2.000,00 €
Fundación ArteOn (Escolanía ArteOn)	Entseguak eta kontzertuak	2.000,00 €
Asociación Coral Bi Hotzak	Entseguak eta kontzertuak	2.000,00 €
Kirikiño Atsedeen Taldea	Baratzeko udako kultura jarduerak	2.000,00 €

2. SORTA

Kultur ekitaldietan parte hartzeko joan-etorrietarako diru-laguntzak Kopurua: 1.500,00 euro.

ELKARTEA	EGITARAUA	2021EKO DIRU-LAGUNTZA
Fundación ArteOn (Escolanía ArteOn)	Joan-etorriak	750,00 €
Asociación Coral Bi Hotzak	Joan-etorriak	750,00 €

Interesdunei erabakiaren berri ematea, eta orobat jakinaraztea horren kontra, administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik kontatuta, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Laudio, 2022ko urtarrilaren 7a

Alkalde-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE